

**TOLOSALDEA
ESKOLA AGENDA 21
19/20 IKASTURTEA**

Jan(h)ariaren atzetik

TOLOSA



TOLOSA
jasangarria

kaixo, EA21 proiektuan egindako lana aurkeztera gatoz



- Herrikide ikastetxea
- Inmakulada ikastola
- Laskorain ikastola
- Orixe institutua
- Peñascal ikastetxea
- Samaniego ikastetxea
- Tolosaldea lanbide institutua



aurten Jan(h)ariaren atzetik ibili gara !

Landa eremuari bizkarra eman diogu eta ondorioak nabaritzen ari gara. Ekonomia eredua aldatu beharra dago, LINEALETIK ZIRKULARRERA salto egin! Horretarako ez dago ezer berria asmatu beharrik, gure aurrekoek egiten zutena jarraitzea besterik ez dago!

“Baina ez guk bakarrik, eskolako beste langile, irakasle eta gurasoek ere partehartu dute”

EA21ean 3 ardatz lantzen dira

1 Eskolako
kudeaketaren
hobekuntza

2 Curriculumaren
azterketa

3 Herri
partaidetza

HH



GABONETAN ZENTZUZ KONSUMITZEKO

TOLOSALDEA
ESKOLA AGENDA 21
19/20 IKASTURTEA

3 TRUKO PRAKTIKAN JARRI DITUGU

1

Erosketetara
zerrenda
eraman



2




Telazko
poltsak edo
karroa
eraman



3


Bertako
produktuak
herriko
dendetan erosi






Martxoaren 13ean COVID-19 birusaren ondorioz ezarritako larrialdi egoerak, ikastetxeetan aldaketa asko sortu zituen. Geroztik, etxetik egin dugu lana eta proiektu honetan ere eragina izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasleei, Ingurugelako kideei, udalako bidelagunei eta gurasoei, aurrera egin ahal izateko egin dituzten ahaleginengatik.



EGIN DUGUN LANKETA

- ▶ Lanketa, irakasleek aukeratutako LHko eta DBHko maila batean soilik egin da.
- ▶ Bietan, gaiaren diagnostikoa etxera zuzendutako galdeketa baten bitartez izan da.
- ▶ Landu beharreko fitxarekin batera fitxaren nondik norakoak eta argibideak azalduz gidoia izan dugu



LH



ON EGIN,
EGIN ON!

- Etxeetan elikadurari ematen zaion garrantzia aztertu dugu
- Elikaduraren zirkularitatea eta produktu batzuen trazabilitatea ezagutu dugu
- Janariaren xahuketa zer den ikasi dugu eta honen ondorioez ohartu gara eta xahuketa nola ekidin ikasi dugu



DBH



SOBERAKINETAN
ARAKATZEN

- Ekonomia zirkularraren kontzeptua ulertu dugu
- Tolosaldean soberakinen aurrean dagoen ekimenak ezagutu ditugu
- Etxeko elikagai xahuketa aztertu dugu

Lanbide Heziketa

▶ “OGI SOBERAKINEKIN GARAGARDOA EGITEKO” PROIEKTU PILOTUA

- TOLOSALDEA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUAN garagardoa egiteko eta hondakinen kudeaketa eramateko ezagutza teknikoak landu ditugu
 - INMAKULADA LANBIDE IKASTOLAN gazteengan alkoholaren edarien eraginari buruzko saioak landu ditugu
 - PEÑASCAL KOOPERATIBAN elikaduraren segurtasunaren inguruan sakondu dugu
- eta FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLAN garagardoa egiteko baliabide naturalak landu ditugu

HERRI PARTAIDETZA

Udal batzorde honetara herri
mailan egindako lanaren
emaitzak ekarri ditugu

Elikagaien inguruko azterketa egin
dugu: etxean ditugun eguneroko
kontsumo ohiturak, aukerak, xahuketa
eta askoz gehiago aztertu ditugu

Atera ditugun
ondorioak

Gaiarekiko hartu
ditugun konpromisoakK

Udalari egin nahi
dizkoigu
proposamenak

KONPROMISOAK

eta guk zer egiteko prest gaude?

TOLOSALDEA
ESKOLA AGENDA 21
19/20 IKASTURTEA

Herrian kontsumitu. Azokan
ekoizleei zuzenean erosi

Erosketara berrerabili daitezkeen
poltsak, orga edo tuperrak eraman

Etxean prestatu janariak eta jango duguna
bakarrik sukaldatu eta soberakinak
aprobetxatu beste errezetak egiteko,
kongelatu edo ezagunekin konpartitu

Produktuak erosterakoan hondakin
gutxien sortuko dituztenak aukeratu.
Ontziratutako produktuak saihestu

Km 0 produktuak kontsumitu, garaiko
eta bertako produktuak

Hondakinak ondo sailkatu eta zabor poltsa
beteta dagoenean bakarrik atera

PROSAMENAK

eta udalari zer proposatzen diogu?

TOLOSALDEA
ESKOLA AGENDA 21
19/20 IKASTURTEA


-  Dirulaguntzak sortu bertako produktuen ekoizpena bultzatzeko, azokako postuak merketu eta ekoizleei trabak ez jarri
-  Eskualdean azoka gehiago antolatu
-  Gazteen inplikazioa bilatu, beraien ahotsak ezagutzera eman gizartearen aldaketarako herritar garrantzitsuak garelako
-  Hondakinen bereizketa ondo egiteko eta kontenedoreen erabilpen egokia egiteko kanpainak egin. Isunak jarri arauak betetzen ez dituenari
-  Zaborraren gestio egokia egin. Zakarrontzi eta kontenedoreen mantenimendua hobetu (hustu, garbitu, konpondu, ...) eta gehiago jarri

PROSAMENAK

eta udalari zer proposatzen diogu?

TOLOSALDEA
ESKOLA AGENDA 21
19/20 IKASTURTEA

-  Azokan paperezko poltsak jarri
-  Konpostagune gehiago jarri
-  Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko kanpainak egin
-  Herri baratza parkea handitu eta gazteei zuzendutako ikastaroak
-  Jatetxe, taberna eta supermerkatuetan sobratzen den janari bilketa antolatu
-  Toki berezi bat prestatu soberan geratutako janaria uzteko, nahi duenak har dezan
-  Herriko jaietan eta bazkaritan bertako produktuen kontsumoa sustatu eta kontsumitu
-  Politika ekologikoak sortu eta hauen alde egin
-  Herritarrak informatuta mantendu



**Berandu baino lehen
Naturarekin daukagun harremana
aldatu beharrean gaude,
errespetuzko erlazioa izan behar da!!**

Denon artean Tolosa justu, parekide eta iraunkorragoa
lortuko dugulakoan gaude!!!

Jaso gure agurrik beroena !!